

Donostian, 1999ko uztailaren 23an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola eta
J. M. Satrustegi, euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
tzailea,
A. Eguzkitza, Exonomastikako
batzordekidea 1.1.1. gaian eta
J. J. Zearreta ekonomi-eragilea 2. gaian.

Hizkuntza arauak

38. eta 53. Arauen zuzenketak onartzea

Andolin Eguzkitzari eman zaio lehendabizi hitza. Aurreko bileran aipatutako *afrikaans* hizkuntzaz zalantzak dituela esan du. Peillen jaunak erantzun dio esanaz mundu guztian izen horrekin ezagutzen dela hizkuntza hori.

Dena dela, gaurko lana lehen onartutako zerrendari egin zaizkion gehiketak azterzea dela gogora ekarri da. Horrenbestez, banan-banan irakurri da zerrenda hori.

Peillenek galde egin du ea *galizieraren* ondoan ez ote litzatekeen *galego* izena ere ezarri behar. Sarasolak dio *galego* hitzak baduela tradizioa. Biak ezartzea onartu da.

J. L. Lizundiaren iritziz, *groenlandieraren* ondoan *inuit* izenak ere agertu behar luke.

Valentzian ofizial den hizkuntzaren izenak ere eztabaida ekarri du. Katalana eta valentziera hizkuntza bera izanik ere, hizkuntza ofizial diren aldetik, bi izenak jaso beharko lirateke. Eguzkitzak gogorarazi du arazo bera dagoela serbokroazierarekin. J. San

1999ko uztailaren 23an, Donostiako ordezkarietan, bildu da Euskaltzaindia bere hileroko batzarra egiteko. Bileraren goizeko hamarrak eta laurdenetan hasi da. Bilduen izenak ezkerreko zutabearen jasoan dira. Ezin etorria adierazi dute X. Diharcek, H. Knörrek eta A. Urrutiak.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Onartutzat eman dira aurreko hileko bi agiriak inongo oharrak gabe.

Euskaltzainburuaren hitzak

Euskaltzainburuak hil berri diren bi euskaltzain ohorezkoren izenak aipatu ditu: J. A. Loidi, batetik, eta A. Martinet frantziar hizkuntzalaria bestetik. Euskaltzaindiak bere dolumina agertuko die senitatekoei. Hilberri txostenak ere aginduko ditu.

Martinen iritiz, zerrendak hitzaurre bat behar luke, azalduz une batean ofiziala dena ez ofizial bihur daitekeela, eta alderantziz. Ibon Sarasolaren arabera, Euskaltzaindia munduko hizkuntza ofizialen izen ofizialak finkatu nahian ari da. Hori gogoan izanik, ohar bidez azalduko dira hizkuntza berak bi izen ofizial desberdin izan ditzakeen kasuak, horrela, irizpide linguistikoa eta administratiboa ongi bereiziz. Katalanaren kasuan, esaterako, Kataluniako eta Valentziako erkideogetan ofiziala dela esango da. Eta honako ohar hau erantsiko zaio: “Valentzian *valentziera* du izen ofiziala”.

Botoetara jo da eta hamazazpi euskaltzain agertu dira alde eta batek zuriz bozkatu du. Horrela, ontzat eman da aurkeztutako zerrenda, ageri diren hutsak zuzenduz (*kreolera*, esaterako, minuskulaz emango da).

38. arauari dagokionez, hango zerrendari ere hizkuntzen izenak erantsiko zaizkio.

Hiztegi Batua

Pikante-postu hitz zerrendako pitxi hitza onartzea

Hitz honi buruzko argitasunak eskaini behar zituen batzordeak. Honen proposamena honako hau izan da: *pitxi* sarreraren 1. adiera dagoen bezala utzi. Eta honi bigarren bat erantsi: *pitxi* 2* e. **bitxi**. Eztabaida izan da ea zenbateraino den bidezko bi formak bereiztea eta abar. Azkenean bozkatu den proposamen berria honako hau izan da: *pitxi** e. **bitxi**, hitzarentzat forma bakarra emanaz inolako bereizketarik egin gabe. Bozkatu da eta honako hau izan da emaitza: hiru boto, kontra, bi zuri eta gainerako guztiak alde. Horrenbestez bereizketarik ez egiteko proposamena onartu da.

Postura-santu hitz zerrenda onartzea amaitu

Aurreko bileran hala markatuak zeuden hitzak geratu ziren eztabaida zain.

Prefet ala *prefeta* behar duen “galdetzeko” oharrarekin markatua dator zerrendan. Iparaldekoen arabera, *prefet* behar du. Hala onartu da.

Eztabaidarako markatuak datozen hurrengo hitzak *prestigio/prestijio* eta *pribilejio* dira. Euskara Batuko batzordekide gehienak *j*-ren aldeko omen dira. Hala ere, eztabaidagarri gertatzen da kontua. Hau dela eta, esan da agian iritsi dela ordua bere garaian emandako ahoskatze araua aldatzeko. Bestalde, Leioako txostenean *g/j*-ri buruz proposamenak egin ziren eta ezin du Euskaltzaindiak aldi oro honetaz eztabaidan jardun. Aldeko eta kontrako arrazoiak pisatu dira eta azken proposamena da *g-z* idaztea eta letra honen ahoskatze araua ezitzea, argiro azalduz zerk eraman duen Euskaltzaindia horretara. Honen arabera, aurreko zenbait hitz proposamen (*orijinal*, etab.) aldatu egin beharko lirateke. Hala ere, B. Oihartzabalen iritiz, tradizioa baldin bada, tradizio hori errespetatu egin behar da.

Sakrilegio hitzarekin ere arazo bera sortzen da. Arazoaren garrantzia ikusirik, hobeto aztertu beharra ikusi da. Oraingoan proposamena hitz horiek denak batera tratatzea izango litzateke. Honako hau erabaki da, azkenean: denak zerrendatik kendu eta gero ahoskera batzordeak azter dezala arazoa eta, hitz guztiak kontuan harturik, behar den bidea hartu.

Pues/puies auzia, bigarrenaren alde erabaki da, zabalduena berau baita. *Ipar*. markarekin hornitua emango da, nolana ere.

Puntista bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Ron sarrera dagoen bezala uztearen aldeko botoa eman dute hamaika euskaltzainek. Beste bost, berriz, *roma* hitza ere sartzearen aldeko agertu dira. Beraz, *ron* onartu da.

Sahaski, *sahasti*, *sahats* eztabaidaren aurrean, nahiz eta forma nagusia *sarats* den, *sahats* proposatzen da, 68an Euskaltzaindiak forma hau eman baitzuen. Bozkatu da eta hamaika euskaltzain agertu dira *sahats*-en alde. Bost, *-r*-dun formaren alde.

Sakaila, *sakailarazi* eta *sakailatu* bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Sakonune/sakongune auzian *sakonune* forma onetsi da.

Salbu sarreran arazoa, nonbait, da hitz horrek perpausean duen kokagunea jakitea. Hori argitzeko honako bi adibide hauek ematea onartu da: *fededun guztiak, salbu zaharrak eta eriak; horiekin denekin, hasi berri diren zenbaitekin salbu, kantatu dut askotan*.

Hiztegi Batuko santugile-soprano zerrenda onartzea

X. Kintanak aurkeztutako oharrei dagokienez, hona hemen eztabaidaren emaitza.

Sardinzar formaren grafia ez du begi onez ikusten ohargileak. Nahiago luke, izatekotan, *sardintzar*. Dagoenetan uztea erabaki da.

Sastre sarrerari h. **jostun** eranstea onartu da.

Satiriko sartzea onartu da.

Satsitu sarrera bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Sebo hitza erdarakada gordinegia iruditzen zaio Kintanari eta markaren bat eranstea ongi ikusiko luke. Hala ere, H letraren zerrendan ageri da *ziho* "seboa". Horrenbestez, sartu beharrekotzat jo da, nahiz eta *Heg*. 'bilgorra' gisa ematea onartu den.

Segitu-ren sarreran azalpen argiagoa eskatzen da oharretan. Adibidez hornitzea erabaki da: *lehengo bideari segitzen dionak; lanean segitu du 70 urte arte*.

Bestalde, *segituan* hitzari *Gip*. oharra kenduko zaio.

Seilu hitzari sinonimo onargarriagoren bat gehitzea eskatzen du ohargileak. Bozkatu ondoren, hamalau boto izan dira sarrera hori dagoenetan uztearen aldekoak.

Seinzain grafia baino egokiagoztat dauka Kintanak *seintzain*. Hau ere bozkatu da, honako emaitza honekin: zortzi boto *seinzain*-en alde eta hamar Kintanaren proposamenaren alde. Horrenbestez, zerrendan *seintzain* forma jasoko da.

Sekante hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Senperrenak ikusi azpisarreraren ondoan *senperrenak esan* eta *senperrenak egin* eranstea proposatzen da oharretan. Oraingoz, dagoen bezala uztea erabaki da.

Sentidu sarreran ematen den *zentzumen* forma hobetsiarekin ez dator bat ohargilea. Eztabaida izan da eta hamar boto agertu dira batzordearen proposamenaren alde, bat kontra, eta zazpi zuri. Horrenbestez, sarrera hori dagoenetan uztea erabaki da.

Sikate hitzari adiera eranstea (=lehorte) eskatzen du Kintanak. Onartu da. *Siku* sarreri ere adiera erantsiko zaio.

Silueta eta *soslai* ez dauzka ohargileak baliokidetzat. Onartu da oharra. Horrenbestez, bakoitzak bere sarrera izango du. Charritton jaunak, bestalde, etimologian oinarriturik, z-rekin idaztea nahiago luke. Ez da onartu.

Sindikatu, aditz gisa, hurrengo itzulirako uztea onartu da.

Sinistu sarreran h. **sinetsi** oharra ezartzea onartu da.

Soberan egon azpisarrera gehitzea eskatzen du Kintanak. Ez da onartu. Are gehiago: *sobera egon* eta *sobera izan*, biak ere sobera daudela erabaki da eta, horrenbestez, zerrendatik ezabatu egin dira.

Soberanotasun hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Sobra sarreran h. **sobera** eranstea eskatzen da. Ez da onartu. Horrezaz gainera, *sobran* azpisarrera ezabatzea onartu da.

Sonda sarreran dagoen hutsa zuzenduko da: sonda* e. **zunda**.

Solte sarreran zenbait adibide eskatzen ditu ohargileak, "suelto" eta antzekoei bidea itxeko. Hurrengorako ekarriko dira adibide horiek.

Somatu/sumatu bikotearen auzian *sumatu*-ri ematen zaio lehenasuna zerrendan. Kintanak alderantziz jokatzeari nahiago luke, *susmatu* hitzetik urruntzeko. Hala ere, datuen arabera *sumatu* da nagusi, antza, eta, horrenbestez, hau hobetsi behar da.

Azkenik, batzordeak berak gehiketa bat proposatu du: **sendi izan Ipar**. Ez *nuen holako dohainik sendi ene baitan*.

H. Knörr jaunaren oharren azterketak honako emaitza izan du.

Sapabelar falta omen da, ohargilearen arabera. Nonbait, Azkuek bakarrik dakar hitz hori. Horren ordaina izango litzateke zerrendan sartua datorren *sapelar*. Horrenbestez, ez da oharra aintzakotzat hartu.

Sapai sartzea onartu da. Honela: sapai* e. **sabai**.

Sarats sartzea onartu da, h. **sahats** oharra alboan duela.

Sardana sartzea ere onartu da, gure testuetan tradizio handirik ez badu ere.

Sarjentu-ren orde *sargentu* ezartzea ez da onartu.

Sasiletradu hitzari leku egitea onartu da, *Heg*. markarekin hala ere, *letradu* hitza ezarri zen bezala.

Zerrendan *segur* eta *seguru*, biak jasotzen dira. Ohargileak, batasunaren izenean, bata edo bestea hautatzea eskatzen du. Erabilerak ikusi behar, nolani ere, testuinguru eta guzti. Hurrengo bileran erabakitzeko utzi da.

*Segurantz*a eta *aseguru*, zerrendan biak ematen direla eta, *aseguru* sartu izanaz datua ageri da ohargilea. *Segurantz*a aski izango litzateke haren aburuz, eta ustezko oker hori zuzentzeko beranduegi ote den galde egiten du. Baietz erantzun zaio, berandu dela. Hortaz, gauzak daudenetan utzi dira.

Sehi hitzean argitasun piska bat gehiago eskatzen du ohargileak. 'etxeko zerbitzari' adiera ezarriko zaio.

Seminario guztiak 'mintegi' ez direnez gero, 'apaizgaitegia' adiera ezarriko zaio sarrera horri, oharra ontzat emanaz.

Sendi-ren sarreran "h. familia" gehitzea eskatzen du Knörr jaunak. Ezer ez aldatzea erabaki da.

Sendor izenondo gisa jasotzeko eskariari dagoeneko jaso dagoela erantzun zaio, *sendo* hobesten bada ere.

Sendu, izatekotan, hurrengo itzulirako utziko da, lekukotasunak urri baitira.

Serio eta *serios*, biak ageri dira zerrendan. Ohargileak batasunerako bat hautatzea nahiago luke. Ez da onartu eta zerrendan datozen bezala utzi dira.

Serorago sartzeta ere ez da onartu. Hurrengo itzulirako. *Seror-lagun* ere hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Serorategi sarrerari erantsitako *Ipar*. marka ez da bidezko, ohargilearen aburuz, gipuzkeraz eta nafarreraz ere ageri baita. Horrenbestez, marka hori kentzea onartu da. Honako bi adiera hauek emango dira: 1. 'moja komentua'; 2. 'serora bizi zen etxea'.

Sesio hitza gipuzkerazkoa omen da. Datuak begiratu dira.

Sezesio sarreran, gutxienez " = banakuntza " oharra eskatzen du ohargileak. Oso erabilera mugatua duenez gero, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Slogan eta *smoking* sarreretan *eslogan* eta *esmokin* hitzetara bidaltzen du zerrendak, nahiz eta hitz horiek ez diren ageri. Guztia argitaratu aurretik osatu beharko da zerrenda.

Soberakin hitzaren erabilera zein den argitzeko, iz. kategoriakoa dela adieraztea onartu da.

Soinketa ezin da 'gimnastika' hitzaren parekotzat eman. Dena dela, zerrendatik kentzea onartu da.

Soldado gehitzea eskatzen da, "h. soldadu" ezarritz. Baina bi hitzak elkarren ondoan gertatuko lirakeenez, ez da sartu.

Soldaduska eta *soldadutza* parekotzat ematea ez da egoki, Knörren ustez. *Soldadutza* hitzari lehenasuna ematea onartu da (15 botorekin). Dena dela, *soldadugo* sarrerari *Ipar*. marka ezabatu egingo da, benetako forma *soldadogo* baita. *Soldaduska*, berriz, *Heg*. markarekin ematea onartu da.

Solfo barik *solfa* nahiago du Knörrek. Baina, *solfeo* denez, nonbait, formarik erabili, gauzak lehenean uztea erabaki da.

Hirugarren ohargilea A. Urrutia izan da.

Aurreko zerrendan ageri zen *sarale* hitza zergatik kendu den galdetzen du ohargileak. Gutxi erabilia omen da eta bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Sarri-ren azpian *sarri askotan* sartzeta eskatzen da. Batzordeak ongi deritza eta hala onartu da. Bestalde, *sarri* hitzaren 1. adieran hirugarren adibide bat gehitzea proposatu du batzordeak: (*Ipar*.) *Ahal bezain sarri* (= *ahal bezain laster*).

Sarriro bigarren itzulirako utzi da.

Ohargileak *saski-naski* hiz elkartua ere sartzea proposatzen du. Batzordearen ustez, ez du tokirik hiztegi honetan, berez ez baita izena.

Saskil izenondoaren parean *saskildu* hitzari leku egiteko eskaria ez da onartu. Ez dago lekukotasun handiegirik. Beraz, bigarren itzulirako.

Sast onomatopeia sartzea ez da onartu.

Sats egin ere hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

Seguratu-ren baliokide hobetsi gisa *aseguratu* ere sartzea poposatzen du Urrutiak. Baina *seguratu*-ren adibide guztiak, antza, *segurtatu*-ren baliokide dira, ez 'aseguratu' adierakoak. Horrenbestez, ez da onartu proposamena.

Sehaskatxo ez da sartu. Izan ere, txikigarriak ez dira sartzen hiztegi honetan.

Seintzaro sartzea proposatzen da oharretan. *Seinzaro* ala *seintzaro* forma hobetsi eztabaidatu ondoren, *seintzaro* gisa sartzea onartu da.

Ohargileak *sekzio* hitzaren beharrik ez du ikusten. Hor dago *atal*, esaterako. Hala ere, EEBS-n maiztasun zerbaitekin ageri da. Datuak hurrengo bilerarako ekarriko ditu batzordeak.

Semaforo hitza sartzeko eskaria dela eta, bideetako argi-seinaleak behintzat ez dira erantzun zaio batzordetik. Ez da onartu sartzea. Ikusiko da ea bigarren itzulirako den.

Seme-ren azpian *seme premu*, *seme nagusi*, *seme-alabatasun* eta *seme-alabak* sartzea eskatzen du Urrutiak. *Seme-alabak* azpisarrerari leku egitea onartu da. Baina gai-nerakoak bigarren itzulirako utzi dira.

Senar-en azpisarrera gisa *senar-emazteak* sartzea ere onartu da.

Sendakizun eta *senge* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

Separata sartzea ez da onartu. Antza, espainolez bakarrik erabiltzen da. *Sepultura* ere ez da sartuko, ohargilearen eskariaren kontra.

Serbokroaziera ageri den bezala, *kroaziera* ere agertuko behar omen luke. Batzordeak erantzun du esanaz, osatzekotan, gero osatuko dela.

Serora hitzaren azpisarrera gisa ageri den *andre-serora andre* hitzaren azpian hobeki ikusten du ohargileak. Hala ere, *serora* hitzetik hurbilago dagoenez, honen azpian sartzea erabaki zen eta hala uztea onartu da.

Sestra eta *sideral* hitzak bigarren itzulirako utzi dira.

Sinbiosi sartzea onartu da.

Sindikal izenondoaren beharrik ez du ikusten ohargileak. Batzordearen ustez, hala ere, utz liteke zerrendan. Botoetara jo da eta zerrendatik ezabatzearen aldeko agertu dira hamalau euskaltzain. Hala onartu da.

Sinekdoke sartzearen alde ageri da Urrutia. Batzordeak Literatura batzordekoen iritzia aintzat hartuko luke. Eztabaida txiki baten ondoren, kentzea erabaki da.

Soin sarreran *soinez soin* azpisarrera gisa sartzea ez da oraingoz onartu. Izatekotan, bigarren itzulian.

Soldatako bigarren itzulirako utzi da.

Solemne-ren alboan ageri den *hotsandiko* hitza kentzea proposatzen du ohargileak. *Solemne* bera ezabatzea onartu da azkenean.

Ondoren, eztabaidarako utziak zeuden hitzak hartu dira ahotan.

Seda/zeta auziaz, datuen arabera, forma ugariena korpusean *seda* da. Hala ere, azkenaldi honetan *zeta* ageri da nagusi. Iparraldean ere hala omen dira kontuak. Bozkatu da eta hamar euskaltzain agertu dira *zeta* formaren alde. Beraz, sarrera hori honela geratu da: *seda** e. *zeta*.

Sofritu/sufritu aukeraren aurrean, datuek *sofritu*-ren nagusitasuna erakusten omen dute. Eztabaidaren ondoren, bozkatu da eta hona emaitza: *sofritu*-ren alde, lau; *sufritu*-ren alde hamaika. Beraz, honela geratu da sarrera hori: *sofritu** e. *sufritu*.

Horrenbestez, zintzilik utzi diren "litsak" gorabehera, onartutzat eman da *santugile-soprano* hitz zerrenda.

Aramaioko bilkuraz

Hitz zerrendaren azterketa amaitu ondoren, euskaltzainburuak gogorazi du hurrengo bileran bi zerrenda beharko direla onartu. Hain zuzen, bilera hori Aramaion izango da, ostiralean, goiz eta arratsalde. Larunbatean, berriz, goizean eta, behar bada, arratsaldean ere IV. Jagon jardunaldiak izango dira.

Aurrekontuen aurkezpena

2000. urteko aurrekontuen aurkezpena egin du J. J. Zearreta jaunak, sartu diren aldaketan berri emanaz. Atal berria eskaini zaio, adibidez, Jagon sailaren barnean, *Jagonet* egitasmoari. Hain zuzen, Miren Azkarate Jagon sailburuak egin du programa honen aurkezpena: zer den, nola egingo lukeen lan, zer onura izango dituen eta abar. Aurrekontu hau irailaren 15erako aurkeztu behar dela esan du Zearretak, baina urriaren lehen egunetan aurkezteko aukera izatea eskatuko zaio Eusko Jaurlaritzari. Horrela, euskaltzainek oharrak egin ahal izango dituzte irailaren 5a arte. Onarpen bozketa irailaren 24ko bilkuran egingo da. Aldaketaren bat gertatzen bada, aldaketa horiekin helaraziko zaio Jaurlaritzari.

Eskuartekoak

Tx. Peillen, Onomastika batzordekide

Peillen jauna Onomastika batzordekide izendatzeko proposamena aurkeztu eta onartu da.

XIV. biltzarra

Euskaltzaindiak egin nahi duen biltzarra zein urte sasoiatan egingo zen finkatzeko gelditu zen aurreko batzarrean. Zuzendaritzak proposatu du apirillean egitea, aste santuan. Hala onartu da. Hortaz, 2001. urteko aste santu inguruan izango da.

Azken ordukoak

J. M. Satrustegiren txostena: "Santutegiko done forma Hegaldeko tradizioan"

Satrustegi jaunari eman dio hitza, ondoren, euskaltzainburuak, azken bileretan hainbeste hizpide eman duen Santutegiko *done/deun* eta inguruko ena auziaz bere txostena irakurtzeko. Txosten hau, euskaltzainburuaren hitzetan, gai honetaz hartu behar den erabakia hartzeko orduan begien aurrean izango du Euskaltzaindiak gainerako langaiekin batera.

Eta arratsaldeko zazpi eta erdiak inguruan amaitutzat eman da bilkura.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *